

2. IRAITZ-APARATUA

1. Lotu iraitz-aparatuaren atalen izenak funtzioekin.

- a. Gernua gordetzen du.
- b. Gernua maskuriraino eramaten du.
- c. Gernua kanporatzen du.
- d. Odola giltzurrunean sartzen du.
- e. Odola giltzurrunetik ateratzen du.
- f. Gernua sortzen du.

MASKURIA URETRA URETERRA GILTZURRUNA

GILTZURRUN ARTERIA GILTZURRUN ZAINA

2. Iraizketan parte hartzen duten organoak beraien betetzen duten funtzioarekin lotu.

GILTZURRUNAK	Zelula-arnasketan sortzen den karbono dioxidoa kanporatzen dute.
GIBELA	Larruazalean barreiatuta dauden guruin exokrinoak dira eta izerdia kanporatzen dute.
BIRIKAK	Digestioaren eta zenbait botika hartzearen ondorioz sortutako hondakinak kanporatzen ditu.
IZERDI-GURUINAK	Zelula-metabolismoan sortutako substantzia toxikoak kanporatzen dituzte gernuaren bitartez.

3. Ordenatu gernuaren ekoizte prozesuaren atalak eta lotu atal bakoitzean gertatzen den prozesuarekin.

Iragazketa	ioiak eta ur kantitate txiki bat xurgatzen dira.
Hodi bihurgunetsu distala	Glomeruluaren hormen eta kapsularen artean gertatzen da.
Henle-ren lakioa	Hemendik gernua giltzurrun-pelbisera iristen da.
Hodi bihurgunetsu proximala	Mataza baten moduko kapilarren multzoa da.
Glomerulua	Birxurgapena hasten da. Glukosa, ura, aminoazidoak, ioiak eta bitaminak odolera bueltatzen dira.
Hodi biltzailea	la ez da urik xurgatzen, bai ordea ioiak.
